

Elkarriren VII. Batzar Nagusia
Oinarrizko txostenaren 2. dokumentua

Elkarriren Jarduera Plangintza 2003-2005rako

Zubi berri bat eraiki

Construir un nuevo puente

2003ko martxoaren 1a

Aurkezpena

Hamargarren urteurrena du Elkarrik 2002ko abenduaren 21ean. Egun horretantxe utziko zion Zubigintzan Plan Estrategikoak –2000ko ekainean onartua– indarrean egoteari eta VII. Batzar Nagusiari ekin genion –2003ko martxoaren 1ean da amaitzekoa. 2003-2005 eperako jarduera-plan berria onartzea izan du helburu batzarrak.

Egoera bereziki konplexua dugu gaur egungoa. Krispazio-, mehatxu- eta asaldatze-giroa inoiz ez bezalakoa da. ETaren zuzeneko mehatxupearan daude PP, UPN, PSE-EE, PSN eta UA alderdiak; Batasuna, berriz, ilegalizazio- eta jardueren etete-prozesua ari da aldi berean jasaten; Lehendakariak elkarbizitzarako hitzarmen berri bat proposatu du –Eusko Jaurlaritzaren eta hori osatzen duten hiru alderdien izenean–, eztabaida gogorra eragin duena; hilabete batzuk barru (2003ko maiatzean) udal- eta foru-hauteskundeak izango ditugu; 2004ko martxoan, berriz, hauteskunde orokorrak; 2005eko udaberrian, azkenik, hauteskunde autonomikoak EAEn.

Elkarri bera ere ez dago nolana hiko unean: Bake Konferentzia amaitu berria da. Berebiziko esperientzia izan da prozesu hori eta Bake-bidea proposamenaren aurkezpenarekin bukatu da. Bestalde, hamargarren urteurrenaren ospakizuna aitzakia ederra izan ohi da balantze- eta ebaluazio-ariketa sakona egiteko.

Barne- eta kanpo-egoera horretan egin da, bada, batzarrerako prozesua. Elkarriren erronka azkenaldi honetako jardueraren ondorioak ateratzea izan da, bakearen aldeko ekintza-plan baliagarria eratu ahal izateko une zail honetan, hamargarren urtebetetzea ospatzea egokitzen zaigunean hain justu.

Bi dokumentu bereizitan banatu dira VII. Batzar Nagusirako materialak: 1. dokumentuan azken bi urteotako jardueraren balantzea egin dugu; 2. dokumentu honetan, berriz, Jarduera Planaren proposamena dator. Hiru atal ditu bigarren txosten honek: (1) diagnostikoa, (2) Elkarriren oinarriak eta zeregina eta (3) esku-hartze egitasmoa.

Lehen zatia Diagnostikoa

1998an Eraiki proiektua eratu genuenetik, hiru arauen araberrako diagnostiko-sistema erabiltzen du Elkarrik batzarretarako txostenetan eta Sei Hileko Jarduera Planetan (PAS). Lehenbiziko araua zorrozatasuna eta analisi-metodoaren jarraitasuna da, aurreko diagnostikoak abiapuntutzat harturik betiere. Bigarrena, oztopoen eta aukeren identifikazioa egitea: aukeren alorrari ekin eta bultzatu egiten dugu. Hirugarrenik, gertakariak eta ekimenak interpretatzeko prozesu-irizpide bat erabiltzen dugu, saiakuntza-akatsa eta etapa-gainditze prozesu baten barruan betiere. Hiru irizpide horiek edukiz betetzea du helburu VII. Batzar Nagusirako txostenaren lehen zati honek. Hiru ataletan dago banatuta:

1. Gaur egungo egoeraren deskribapena.
2. Oztopoak eta aukerak.
3. Ondorioak.

1. Gaur egungo egoeraren deskribapena

Hiru ikuspegitatik egingo dugu deskribapena: azken bi urteetako egoera, gaur egungoa eta hemendik aurrera izan daitezkeen aldakuntzak.

1.1. Azken bi urteak

Gure gaur egungo egoera azkeneko bi urteotako gorabeheren (nazioartekoen eta bertakoen) arabera izan da, dudarik gabe. Ikuspegi zabalagoz jorratzearen bai egungo egoera bai geroak ekar lezakeena, iragan hurbilari ekingo diogu lehenbizi.

1.1.1 Nazioarteko egoera

2001eko irailaren 11ko atentatuak, Afganistango gerrak, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren gaiztotzeak, Irakeko krisiak..., horiek guztiek areagotu egin dituzte joera militarista eta autoritarioenak; moteldu egin dituzte, aitzitik, diplomaziaren, negoziazioaren edo gatazkak konpontzeko bitartekaritzaren aldekoak. Eragin negatiboa izan du horrek Europan, Espainiako Gobernuaren politikan eta gure herriaren egoeran. Egoeraren beste muturrean, berriz, bake-prozesuen aldeko erreferentzia positiboa izaten jarraitzen du Irlandak, gorabeherak gorabehera. Beraz, eta aipatu salbuespena aipaturik, garai txarrak izan dira azken bi urteotakoak nazioarteko egoerari dagokionez, elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren aurkakoak.

1.1.2. Hemengo egoera

Geureari dagokionez ere oso txarrak izan dira azken bi urteok bake-prozesua eta elkarrizketa bidezko konponbideak bultzatzeko. ETAren su-etenaren hausturak (1999ko amaiera aldera) sortutako testuinguruan aztertu behar dira azken bi urteok. Su-etenaren amaiera ondorengo urteak ETAren mehatxu- eta atentatu-kanpaina bortitza ekarri zuen, baita krispazio politiko gogorra ere (2001eko maiatzaren 13ko hauteskundeak arte iraun zuena). Hauteskunde horien emaitzak kolpe latza izan ziren PPren Gobernuaren estrategiarentzat; era berean, su-etenaren hausturari erantzun tinkoa eman zioten. 2002ak, berriro ere, tentsio politiko handia ekarri du (ETAren mehatxuak elikatua betiere) eta gero eta sektore zabalagoetara hedatu da. Batasunaren aurka Espainiako Gobernuak darabilen estrategiak ere (legez kanpo jartzea, jarduera etenaraztea, atxilotetak) nabarmen elikatu du tentsio politikoa. Lehendakariak, berriz, bizikidetasunerako hitzarmen berria (eztabaidatua) aurkeztu zuen irailean, aipatu egoerarekiko alternatiba gisa edo. Elkarriren Bake Konferentzia, bien bitartean, akordiorik gabe amaitu zen; aurrerapauso nabarmenak egin ziren, alabaina. Giro nahasian gertatu da hori guztia. Azkeneko hilabeteotan, gainera, are gehiago nahastu da, hauteskunde-aurreko giroa baitabil, zenbait herritarrek jasaten duten mehatxu- eta bazterte-egoerarekin batera. Komunikabideen papera zenbaitetan ere faktore ezkor garrantzitsua izan da, presioa eragin, giroa trakestu eta jarrerak gogortu dituen.

1.2. Gaur egungo egoera

Egungo egoera ez da batere esperantzagarria: azken urteotan metatutako mesfidantza-, blokeo-, krispazio-, mehatxu- eta sufrimendu-zama ezin garraiatu gabiltza, izan ere. Hori guztia (lehendik ere bageneukana) errotu egin da 2002aren amaiera eta 2003aren hasiera honetan. Horrekin guztiarekin batera, bost faktorek bereizten dute gaur egungo egoera:

1.2.1. Hiru apustu estrategiko

Hiru apustu estrategikoren baitan dago -batik bat- gaur egungo egoera. Apustu horietako bakoitzak badu nork gidatua eta bultzatua: ETAk indarkeria-estrategia bultzatzen du, Espainiako Gobernuak ezker abertzalearen ilegalizazioarena, Eusko Jaurlaritzak hitzarmen berriarena. Testuinguru horretan, korrante politiko guztiek blokeo-gehiengoak osatzen dituzte, baina bakar batek ere ez du desblokeatze-gehiengorik osatzea lortzen. Ez eztabaida politikoak ez mediatikoak ez dute bide eraikitzailetik jotzen: sustriak krispazioan jarriak dauzka eta mesfidantzak menderaturik dago.

1.2.2. Mehatxu aldeanitz

Bestalde, hainbat mehatxu edo mehatxu-giro (alde askotakoak) larri ditu ezaugarritzat egungo egoera politikoak: PP, UPN, PSOE, PSN, PSE-EE eta UA alderdiak ETArek atentatuen, mehatxuen eta jazarpenaren biktima dira; ezker abertzaleko zenbait erakundek ilegalizazio, eraso eta jarduera-debekua jasaten dituzte; Eusko Jaurkitzako alderdiek, berriz, presio politiko eta mediatikoak etengabe jasotzen dituzte. Jakina, egoera horiek ez dago elkarrekin parekatzerik, kualitatiboki ezberdinak baitira, baina egin berri dugun deskribapenak honako hau azaltzen digu behintzat: eragile politiko batzuen zein besteen jarduera autodefentsakoa da neurri handi batean. Hau da, suntsituak, baztertuak edo akabatuak izateko beldurrak ezartzen ditu lehentasun politikoak. Inondik ere ez da hori girorik egokiena gizartearen interes orokorrak aintzat hartzeko.

1.2.3. Indar-estrategien talka

Bakea, konponbideak eta elkarbizitza lortzeko euskal gizarteak daukan itxaropena bi indar-estrategia nagusiren artean dago kateatuta: indarkeriaren eta ilegalizazioaren estrategien artean, alegia. Ez bata ez besteak ez dute inongo bideragarritasunik; gainera, aurka dauzkate biek euskal herritar gehien-gehienak. Bestalde, konponbideetarantz hurbildu beharrean arazoak areagotzea besterik ez dute egiten. Egoera blokeatzeko eta baldintzatzeko ahalmen handia dute estrategia horiek; baina,aldi berean, hura desblokeatzeko ezgaitasun nabarmena ageri dute.

1.2.4. Egoera desblokeatzeko ahaleginak

Egoera desblokeatzeko hainbat ahalegin ere badira testuinguru honetan, oraingoz blokeoa gainditzerik lortu ez badute ere. Erandioko Udalaren eta Eibarren bultzatutako manifestuaren esperientziez gain, Bake Konferentziarena dugu adibide garbientakoa. Urtebete lanean aritu ondoren, adostasun-zirriborroak ezin izan dira hitzarmen esplizitu bihurtu, indarkeriaren eragin suntsitzailea eta ilegalizazioaren indar baztertzailea direla medio. Nolanahi dela ere, ekimen konstruktiboak aurkezteak eragin handia du, ezinbesteko kontrapisua baita indarraren, fatalismoaren, itxaropen-ezaren eta inposizioaren aurrean.

1.2.5. Gizarte-kohesioa

Gizartearen indar integratzailea eta moderatzailea ardatz ezinbestekoa dugu egoera politikoa aztertzeko. Oso erroturik daude gure gizartean honako jarrera hauek: indarkeria arbuatzea, gatazka konpontzeko elkarriketa aldarrikatzea, aniztasuna aintzat hartzen duen konponbidea eskatzea eta etorkizunaz erabakitze eskubidea exijitzea. Indarkeria-eta gatazka-giroan bizi garen arren, gure gizartea –zorionez– demokratikoa, heldua eta bere buruaren jabe da: ez du inoren babes autoritariorik onartzen ez bere ordezkari gisa jarduteko, ez askatasun-bidean jartzeko, ez iritzia ematea galarazteko. Gizartea eta irizpide politiko guztiak zeharkatzen ditu aldenik alde jarrera horrek. Ongi zentratutako gizartea daukagu, muturreko estrategiei bizkarra ematen diena. Jarrera horrek galgatu egiten ditu indarkeria, enfrentamendua, zatiketa edo bazterketaren aldeko ahaleginak.

1.2.6. Mesfidantzak

Pluralismoaren gaiari dagokionez, pluralismoaren esanahia ulertzerakoan eta batez ere berari eskatzen zaiona ulertzerakoan hainbeste bateragarritasunik ez dago. Hau da, desberdinu behar dugu konponbide zabal bat eskatzen duen gizarte bat dagoela eta pluralismoa ondare berbera gisa txertatuko duen konponbidea.

Agian jende askok jakingo du zein den bere talde-identitate zehatza, baina ziurraski ez du oso argi izango autoezagutza horrek dakartzan ondorio politiko eta sozialak eta batez ere zein diren ezarri behar diren arauak (ahalik eta zentzu zabalena emanaz) identitate desberdinak bakean bizi ahal izateko.

Orain planteatzen ari garen arazoa identitate-nahasmenearena da. Nahasmene honek berez posizio baztertzaileak eragiten ditu. Ziurgabetasunak isolamendurako irtenbide-aterpeak eragiten ditu. Zalantza izanez gero, jendeak intuizioz eusten dio uste duenari eta ez da fidatzen besteetaz. Ez gaude enfretamendu eszenategi batean baizik eta, uste baino zabalduagoa dagoen, mesfidantza eszenategi baten aurrean. Ziurgabetasun/ezjakintasun/onarpenik eza/mesfidantza segida jarraituz eraikitzen den eszenategia.

1.3. Ondorioak eta bilakaera

Aipatu dugun egoerak (indarkeria, blokeoa eta jatorri ugaritako mehatxuak) okerrera egin dezake, zalantzarik gabe gainera. Epe laburrera baliteke are okerragoa bilakatzea giroa, indar-estrategiek bere horretan jarrai dezaketelako, batetik, eta mehatxuek zein bazterketak kutsatutako hauteskunde-giroan sartzen ari garelako, bestetik. Epe ertain eta luzera, berriz, ez dago iragartzerik zer gertatuko den; ausarkeria litzateke, beraz, hurrengo bi urteotarako pronostikoak egiten hastea. Dena dela, badira kontuan hartu beharreko zenbait erreferentzia.

1.3.1. Manikeismoa bere gorenean

Etengabeko indarkeria-, mehatxu-, bazterketa-, krispazio- eta blokeo-giroa aproposa izaten da mutur-muturreko erreakzioak, desesperaziozko irtenbideak, proposamen ezohiko edo irregularrak eta mezu apokaliptikoak plazaratzeko. Hortxe aurkitzen du manikeismoak lurrik emankorrena «gurekin edo beraiekin» jarrera hedatzeko eta jarduera politikoaren protagonismoa «hordagoari» emateko. Baliteke, hortaz, mutur-muturreko jarreretan luzaroan kokatzea indar eta ekimen politikoa, are gogorragoak bihurtzea muturreko jarrera horiek eta, ondorioz, egoera blokeatzeko eta baldintzatzeko ahalmen handiagoa izatea. Balizko testuinguru hori oztopo larria litzateke elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidetik abiatzeko. Tentsio handiko eta manikeismo izugarritzeko egoerak sor litezke; komeni da, beraz, horiei aurre egiteko prest egotea.

1.3.2. Blokeoa gainditzeko erreakzioa

Egoerak txarrera egin ahala baliteke, bestalde, gauzak aldatzeko gizartearen, eragile ekonomiko eta politikoaren edo nazioartearen aldarrikapena ere ozenago entzutea eta egoera desblokeatzeko ekimenak ugaltzea. Zenbat eta okerragoa egoera orduan eta konponbidearen aldeko erreakzio handiagoa, hori litzateke gure pronostikoa. Gure mugimendu honen baliabideak eta ahaleginak helburu horretarako erabiliko ditugu, hemen, estatuan edo nazioartean gaztazka era positibo batean eraldatuko duen bake-prozesua bultzatzeko ahaleginetan dabiltzanekin bat eginik. Aurreikus dezakeguna: gure borondatea eta egoera aldatzeko proiektuak. Aurreikusterik ez daukaguna: zein emaitza eskuratuko ditugun.

1.3.3. Aurreikusterik ez daukaguna

Aurreikusterik ez dagoen faktoreak ere hartu behar dira aintzat bilakaeraren azterketa egiteko. Faktore horien artean ditugu hurrengo hiru hauteskunde-deialdien emaitzak, panorama soziopolitikoak alda dezaketenak hirurak ere: udal- eta foru-hauteskundeak 2003ko maiatzean, hauteskunde orokorrak 2004ko martxoan eta autonomikoak 2005eko maiatzean. Beste honako hau ere gerta liteke: hiru estrategiaren menpe dagoen egungo egoeratik beste batera igarotzea (beste strategiaren baten edo batzuen menpekora), ekimen berriak sortu direlako edo bestelako aldaketaren batzuk izan direlako. ETaren su-etenaren ere hortxe legoke: ez dago aurreikusterik, baina ez dago erabat baztertzetik ere. Su-etenik balego, goitik behera aldatuko litzateke egoera. Hori, baina, ETaren esku dago, eta ez da komeni izaten horretaz itsu-itsuan iragarpenak egiten ibiltzea. Etorkizunaren nondik norakoak, hortaz, faktore subjektiboen, objektiboen eta aurreikusterik ez dagoenen menpe daude. Guztiak ere aintzat hartu beharrekoak.

2. Oztopoak eta aukerak

Aurreko atalean azaldu dugu zein egoeratan gauden, hiru faktore hauek aintzat hartuta: iragan hurbila, egungo egoera eta geroko bilakaera. Hainbat oztopo eta hainbat aukera suma genezake, bestalde, egoera orotan, baita konplexuenean ere. Horixe dugu, hain justu, egoeraren diagnostikoaren bigarren atal honen eginkizuna.

2.1. Oztopoen alorra: immobilismoa

Enfrentamendu-posizioen inertziari deitzen diogu oztopoen alorra. Hau da, immobilismoari. Baditu immobilismo horrek atzeraelikatzen duten lau faktore: inposizioa, bazterketa, aldebakartasuna eta betoa. Elkarrri oso lotuak daude laurak, eta egoera aldatzeko aukerak neutralizatzeko ahalmen handia dute. Konponbide bateratuak bilatzeari dagokionez, ezaugarri berbera dute laurak: mesfidantza eta blokeoa eragiten dute.

2.1.1. Inposizio-ikuspegia gatazkaren konponbidez

ETAren indarkeria- eta mehatxu-estrategia da ikuspegi honen adierazle argiena. Helburu politikoak lortzeko egiten den giza eskubideen urraketa ororekin ere badu zerikusia. Inposizio eta indarraren kulturaren partaide da ikuspegi hori. Honakoa du oinarriko pentsaera: ez dago konponbiderik indarkeria erabili gabe; gatazkaren, eskubideen eta konponbideen ikuspegi jakin bat inposatu behar zaie gainerakoei –gehiengoa badira ere–. Immobilismoak, kasu honetan, esaldi hau hartzen du lelotzat: *indarkeria-jarduera amaitzeko, besteek mugitu behar dute lehenbizi*.

2.1.2. Elkarbizitza politikoaren ikuspegi baztertua

Espainiako Gobernuak bultzatzen duen ezker abertzalearen ilegalizazio-estrategia da gaur egun bizikidetasunaren ikuspegi baztertua adibide garbiena, bakarra ez bada ere. Kultura politiko autoritarioa, pentsamendu bakarrekoa, du oinarritzat gure gizartearen arazo politikoei ekiteko era horrek. Disidentea zokoratu gabe ez dagoela arazoak konpontzerik uste du. «Besteak» eta gure gizartearen aniztasuna ukatzeko modu bat da. Aurrekoarekin bat dator inposizio-ikuspegiari dagokionez, baita immobilismoa adierazteko moduan ere: *besteek aldatu behar dute nik nire jarrerak uzteko*.

2.1.3. Konponbideen inguruko alde bakarreko ikuspegia

Norberaren eta ingurune hurbilenearen indarrak aski dira konponbidea aurkitzeko: horra ikuspegi honen oinarriko filosofia. Autosufizientzia-pentsaera horrek ia sektore politiko guztietan ditu bultzatzaile intelektual eta mediatikoak. Hona diskurtso horren funtsa: arazorik ez dago, edo ezinezkoa da elkarrekiko konponbidea. Era batera edo bestera, alferrikakotzat jotzen du ikuspegi horrek elkarriketa, baita inor baztertu gabeko akordioen premia ere. Kultura politiko horrek ez du onartzen –egiazko jardunean behintzat– gure gizartearen benetako aniztasuna eta konplexutasuna. Immobilismo-era bat ere bada jarrera hori, hauxe baitu printzipiotzat: *besteek erakutsi behar didate –aldez aurretik arrazoia niri emanez– elkarriketari ekitea merezi duela; bien bitartean, lehenengo berean jarraituko dut*.

2.1.4. Demokraziaren ikuspegi itxia

Dena herriaren alde, baina herririk gabe: horra harreman politikoaren ikuspegi hori hobekien laburbiltzen duen esaldia. Kultur politiko paternalista eta elitista baten adierazgarri da pentsaera hori (nahikoa zabaldua, bestalde). Esparru itxia da demokrazia –ikuspegi horren arabera–, inondik ere parte-hartzailea. Bestalde, sakratua eta mugiezinezkoa da egungo ordenamendu juridiko-politikoak: hori da topaleku bakarra. Herritarren eginkizuna, berriz, lau urtez behin botoa ematea litzateke bakar-bakarrik (gehienez ere, manifestari ibiltzea horretarako dei egiten zaionean). Ikuspegi horren immobilismoa honako honetan nabarmentzen da: esparru juridiko-politikoak demokratikoki aldatzeari betoa ezartzen dio; galarazi egiten du konponbideen edo etorkizunaren inguruan gizarteari galdetzea. Hortaz, alde aurretik blokeatzen ditu ikuspegi honek bi balizko konponbide.

2.2. Aukeren esparrua: aldaketa

Gure iritziz, aukeren esparrua aldaketari (eta horren aldeko apustuari) dago lotuta, hau da, egungo egoera desblokeatzeko ahalmena duten faktoreei. Lau multzotan bildu ditugu egungo egoeran atzematen ditugun aukera horiek.

2.2.1. Elkarrizketaren aldeko gizartea

Gure gizartearen jarrera: horixe dugu aukera-esparru nagusia eta egungo egoeraren esperantza-iturri aipagarriena. Gizartearen gehiengoaren nahiak –indarkeriarik eza, elkarrizketa, aniztasunezko hitzarmena eta erabakitzeaskatasuna– dira egoera desblokeatzeko giltzarriak. Izan ere, indar- eta inposizio-estrategiak indargabetu egiten ditu gizartearen jarrera horrek; bestalde, alternatibak eratzeko aukera ematen du eta bat dator gatazken konponbide demokratikoaren printzipioekin (Quebecekoa edo Ipar Irlandakoa, kasu). Bake-prozesu erabakitzaile baten esparrua, printzipioak eta oinarria zedarritzen ditu aipatu jarrerak.

2.2.2. Eztabaida irekia

Lehendakariaren proposamenak eragin duen eztabaidak aukera bat dakar gaur egungo blokeo-egoera honetan, zalantza eta zalapartarik sortu badu ere. Esparru juridiko-politikoaren aldaketa –demokratikoa eta elkarrizketa bidezkoa– ahalbidetzen du eztabaida horrek; bestalde, gizarteari galdetu egin behar zaiola aldarrikatzen du eta, ondorioz, argudiorik gabe uzten ditu indarra erabiltzearen aldekoak. Badu, azkenik, beste abantaila bat ere: ez da alde bakarrekoa, alde askoren arteko akordioa behar baitu aurrera egiteko.

2.2.3. Hainbat hausnarketa eta proposamen berri

Bestalde, aukeratutako jotzeko modukoak dira azkenaldi honetan beste zenbaitek (IU-EBk, ezker abertzalearen inguruko Udalbiltzak, Aralarrek, EAK, PSE-EEK edo ELAK) egindako proposamenak ere. Bake-prozesu bati, elkarbizitza-esparru berri bati, Estatutuari edo baketze-estrategiei lotutako ekarpenak dira. Ez dira erabat landutako proposamenak, zirriborro modukoak baizik, baina badute abantaila bat bederen: alternatibaren inguruko eztabaida bultzatzen dute eta, aldi berean, agerian uzten dute immobilismoak ez dakarrela inongo emaitzarik.

2.2.4. Bake Konferentziaren ondorioak

Bake Konferentziaren ondorioak ere aldaketarako aukera izan daitezke, Elkarrik egin beharreko lanari dagokionez batez ere. Bost puntutan laburbilduko ditugu ondorioak: informazio-, partaidetza- eta bakezaletasun-sare zabala euskal gizartean (100.000 lagunetik gorakoa); bake-prozesuaren aldeko sare garrantzitsua nazioartean; egoera txarretan indar politikoen arteko elkarrizketa bultzatzeko baliozko metodologia eta, azkenik, Bake-bidea proposamena. Oinarri sendo eta eraikitzaile horren gainean eraiki behar du Elkarrik bere proiektua.

3. Ondorioak

Ondorioen hirugarren atal honetan laburbildu eta sinplifikatu dugu egoeraren diagnosis. Bi multzotan banatu dugu: egungo egoeraren definizioa, bata; egoerari eman beharreko tratamendua, bestea.

3.1. Egoeraren definizioa

Gaur egungo egoera hitz gutxitan definitzeko honen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu lehenbizi. Ondoren, bake-prozesu erabakitzailea lortzeko egoerak dituen alderdi sendoa eta alderdi ahula jorratuko ditugu.

3.1.1. Ezaugarriak

Immobilismoaren (enfrentamenduaren inertzia) eta aldaketa-nahiaren (indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren bidez) borroka gogorra dugu egungo egoeraren ezaugarri nagusietakoa. Momentuz (su-etenaren hausturatik), immobilismoaren alde ageri da balantzaren orratza. Egoera desblokeatzeko indarrek ez daukate behar hainbateko kemenik oraindik. Krisi politiko larrian murgildurik dago euskal gizartea. Eta baliteke okerrera egitea egoerak.

3.1.2. Alderdi ahulena

Inposizioa (indarkeria), bazterketa (ezker abertzalearen ilegalizazioa), elkarrizketari eta askoren arteko hitzarmenari uko egitea (aldebakartasuna) eta aukera demokratikoei atek ixtea (betoa) dira aldaketaren eta desblokeoaren aurkako faktore kementsuenak.

3.1.3. Alderdi sendoena

Aldaketa-prozesua abiarazteko faktore sendoena gizartearen gehiengoaren irizpideak ditugu, desblokeatze-ekimenekin eta horren aldeko masa kritiko sozial, politiko eta nazioartekoarekin batera. Faktore hori da, gainera, diagnostiko honen baliozkotasunaren adierazlea. Egoera hori aldatuko balitz, galdu egingo luke balioa.

3.2. Tratamendua

Bake-prozesu erabakitzailea bultzatzeko, honako tratamenduari ekin beharko lioke Elkarririk.

3.2.1. Lehentasuna

Lehenik, elkarrizketa bidezko eta indarkeriarik gabeko aldaketaren aldeko ahalik eta indar sozial, politiko eta nazioarteko biltzea, eta, horrekin batera, gatazkaren inertziei probetxu ateratzeko modu eraikitzaileak bilatu, hauek modu positiboan berbideratzeko. Horra eraginkortasunez jarduteko lehentasuna; horra gure lanerako aukera nagusia.

3.2.2. Jarduera-eremu nagusiak

Aipatu lehentasuna oinarri dugula, hiru alorretan jardun behar dugu bereziki:

-Bake-prozesu erabakitzailearen printzipioei (unerik gogorrenetan, bereziki), alternatibaren itxaropenari eta gehiengo sozialen nahiari eutsi egin behar zaie.

-Egoera desblokeatzeko euskarriak jarri behar dira blokeo-faktore nagusien gainetik: indarkeria, ilegalizazioa, aldebakartasuna eta betoaren gainetik, alegia.

-Konfiantza-esparruak sortu behar dira; horretarako, indar politikoaren arteko komunikazio-, elkarrizketa-, hurbilketa- eta akordio-aurreko eremu seguruak eratu behar dira.